

# PROBA ESPEZIFIKOA

201( ko PROBA

**ENPRESAREN  
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





## Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Azterketaren egitura eta parte bakoitzaren balorazioa:

**2 galdera teoriko; guztira, 3 puntuko balioa.** Galdera bakoitzak, gehienez, 1,5 puntuko balioa izango du.

**2 problema; guztira, 4 puntuko balioa.** Atal honetan, ikasleak 3 problemen artetik 2 hautatu eta ebatzi beharko ditu. Problema bakoitzak, gehienez, 2 puntuko balioa izango du.

**Test motako 10 galdera,** hiru erantzun aukeran baina erantzun zuzena bakarria izanik. Guztira, **3 puntuko balioa** izango dute. Erantzun egoki bakoitzari 0,3 puntu emango zaizkio; erantzun desegoki bakoitzeko 0,1 puntu kenduko dira, eta erantzun gabe utziz gero, ez da punturik kenduko. Atal honetan, dena dela, azken emaitza ez da inoiz negatiboa izango.

**Galdera teorikoetan eta problemetan atal bakoitzaren balorazioa adierazita dago, baita zuzentzeko irizpidea ere.**

## GALDERA TEORIKOAK

1. Zer da KPIa? Nork eta nola kalkulatu da?  
(*definizioa, 0,5 puntu; nork eta nola, puntu bat.*)
2. Zer alde daude kooperatiba baten ekarpenen eta SA baten akzioen artean?  
(*0,5 puntu alde bakoitzeko; gehienez, 1,5.*)

## PROBLEMAK

**Aukeratu itzazu hiru problema hauetatik bi.**

1. Dei-zentro batek telefono bidezko 600.000 kontsultari erantzun zien iaz. 20 telefono-operadorek egiten dute lan bertan, eta urtean 1.500 orduz lan egiten du bakoitzak.
  - a. Kalkula ezazu langileen produktibitatea (*puntu bat*)
  - b. Produktibitatea % 5 handitu nahi bada, zein izango da langileen produktibitate berria eta zenbat kontsultari erantzun beharko diete telefono-operadore horiek, lanordu beretan? (*puntu bat*)
2. House SA ordenagailu-enpresak inbertsio-proiektu bat abiarazi nahi du. Hauek dira inbertsio horren ezaugarriak:
  - Hasierako ordainketa: 950.000 €
  - Iraupena: 3 urte.
  - Kaxa-fluxuak: 250.000 € lehen urtean, 350.000 € bigarren urtean eta 400.000 € hirugarrenean.
  - Diruaren kostua: % 6 urtean.



Egin beharrekoa:

- a) Kalkula ezazu proiektuaren berreskuratze-epea eta balio eguneratu garbia.  
(berreskuratze-epea, 0,5 puntu; BEGa, puntu bat)
- b) Arrazoitu ezazu ea proiektua onartzea komeni den ala ez. (0,5 puntu)

3. Hona hemen enpresa baten hainbat datu:

- Kapital soziala.....???????
- Eraikinak.....50.000
- Jesapenak.....8.000
- Izakinak.....12.000
- Ogasun publiko hartzekoduna.....6.000
- Bezeroak.....9.000
- Altzariak.....20.000
- Kutxa.....1.000
- Erreserbak.....7.000
- Bankuak.....4.000
- Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak.....40.000
- Garraio-elementuak.....5.000
- Hornitzaileak.....10.000

Aurreko datuak kontuan hartuta,

- a) Egin ezazu enpresaren egoera-balantzea (puntu bat)
- b) Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-fondoa) eta interpreta ezazu grafiko batez lagunduta (maniobra-fondoa, 0,5 punt; interpretazioa, 0,8 puntu)

## TEST MOTAKO GALDERAK

Biribil batez ingura ezazu aukera zuzena.

1. Tamaina handiko enpresekin alderatuta, enpresa txiki eta ertainek ezaugarri hauek dituzte:
  - a. Malguagoak eta moldaerrazagoak dira.
  - b. Teknologia-maila hobea dute.
  - c. Finantzaketa-aukera hobekak dituzte.
2. Kooperatiba-sozietate bateko bazkideek honekin erantzuten dute:
  - a. Sozietateari egindako ekarpenekin.
  - b. Beren ondare partikularrekin.
  - c. Beren ondasun guztiekin, modu solidarioan eta mugarik gabe.
3. Itopuntuaren (errentagarritasun-atalasearen) azpitik:
  - a. Enpresak mozkinak ditu.
  - b. Enpresak galerak ditu.
  - c. Enpresak porrot egiten du.



4. Enpresa baten merkatu-kuota jaitsi egiten da, baldin eta ...
  - a. enpresaren salmentak jaisten badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean jaisten badira.
  - b. enpresaren salmentak handitzen badira eta lehiakideen salmentak ere proportzio berean igotzen badira.
  - c. enpresaren salmentak lehiakideenak baino gehiago jaisten badira.
  
5. Zein da enpresaren ondareari dagokion funtsezko ekuazioa:
  - a. Ondare garbia = Aktiboa + Pasiboa
  - b. Aktiboa = Ondare garbia + Pasiboa
  - c. Pasiboa = Aktiboa - Ondare garbia
  
6. Nolako ondare-elementua da epe luzerako hartutako mailegu bat?
  - a. Aktibokoa
  - b. Ondare garbikoa
  - c. Pasibokoa
  
7. Aktibo korrontea pasibo korrontea baino txikiagoa bada, ...
  - a. maniobra-fondoa negatiboa izango da.
  - b. maniobra-fondoa positiboa izango da.
  - c. ez da maniobra-fondorik izango.
  
8. Bankuak bezero batek sinatu duen eta etorkizuneko epemuga duen letra baten zenbatekoa aurreratzen duenean, komisio eta interes bat deskontatuz, honela esaten zaio eragiketari:
  - a. Merkataritza-efektuen deskontu-eragiketa
  - b. Factoring-a
  - c. Renting-a
  
9. Jarduera-tasa honela kalkulatzen da:
  - a. Biztanleria aktiboa zati biztanleria ez-aktiboa
  - b. Langabetuak zati biztanleria osoa
  - c. Biztanleria aktiboa zati biztanleria osoa
  
10. Barne-produktu gordina (BPG) kalkulatzeko:
  - a. Ekoizpenaren balio erantsia batzen da.
  - b. Ekoizpen guztiak batzen dira.
  - c. Herrialdean nahiz herrialdetik kanpo ekoiztutakoa batzen da.



## EBAZPENA

### GALDERA TEORIKOAK

1. **Zer da KPIa:** batez besteko familia baten ohiko kontsumoaren adierazgarri diren ondasunen prezioen batez besteko haztatua da. Inflazioa neurtzeko tresna bat.

**Nork eta nola kalkulatu:** INEk (Espainiako Estatistika Institutua), hileroko, lurraldeko INEren erosketa-saskirako oinarritzko kontsumo-talde bakoitzeko produktu adierazgarrien hautaketa eginez.

2.

	Koop. ekarpenak	S.A. akzioak
Salmenta	Ez da saltzerik	Salmenta librea
Bozketa	Bazkide bat, boto bat	Akzio bat, boto bat
Balioa	Ez dute balio finkorik; ezberdinak dira	Balio berbera (alikuota)
Harpidetza	Ez dute harpidetza-eskubiderik	Harpidetza-eskubidea
	Bazkidea langile da enpresan	Ez du izan behar
Diru-jartzea	% 100 jarri behar da	Gutxienez % 25

### PROBLEMAK

1.

$$\frac{600.000}{20 \cdot 1.500} = 20 \text{ dei langileko eta orduko}$$

% 5 gehiago  $20 + (20 \times 0,05) = 21$  dei langileko eta orduko

$$21 \times 20 \times 1.500 = 630.000 \text{ dei}$$

2.

a) Pay Backaren irizpidea kontuan hartuz, 2 urte eta 315 egun beharko lirateke. Balio Eguneratu Garbia

$$BEG = -950.000 + \frac{250.000}{(1 + 0.06)} + \frac{350.000}{(1 + 0.06)^2} + \frac{400.000}{(1 + 0.06)^3} = -66.804.48 \text{ €}$$

b) BEGaren irizpidea kontuan izanik, proiektua ez da komenigarria, nahiz eta dirua proiektua amaitu baino lehen berreskuratzen den.



3.

AKTIBOIA			ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA		
<b>Aktibo ez korrontea</b>		75.000	<b>Ondare Garbia</b>		37.000
Eraikuntzak	50.000		Kapital soziala	<b>30.000</b>	
Altzariak	20.000		Erreserbak	7.000	
Garra. elemen	5.000		<b>Pasibo ez-korrontea</b>		48.000
<b>Aktibo korrontea</b>		26.000	Epe luz mailegua	40.000	
Izakinak	12.000		Jesapenak	8.000	
Bezeroak	9.000		<b>Pasibo korrontea</b>		16.000
Bankuak	4.000		Hornitzaileak	10.000	
Kutxa	1.000		HP hartzekodun	6.000	
<b>AKTIBOIA GUZTIRA</b>		101.000	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA GUZTIRA</b>		101.000

b) Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka zehazten du. Ondare garbiak gehi Pasibo ez korrontea finantzatzen du Aktibo korrontean zati bat.

Maniobra-funtsa = Aktibo Korrontea – Pasibo Korrontea = (Ondare Garbia + Pasibo ez-korrontea) - Aktibo ez korrontea.

Enpresa honen kasuan, maniobra-funtsa hau da:

Maniobra-funtsa = 26.000 – 16.000 = (37.000 + 48.000) – 75.000 = 10.000 euro

<b>Aktibo ez korrontea</b> <b>75.000</b>		<b>Pasibo ez-korrontea</b> <b>85.000</b>
<b>Aktibo korrontea</b> <b>26.000</b>	<b>M F</b> <b>10.000</b>	<b>Pasibo korrontea</b> <b>16.000</b>

Oreka finantzarioan dago. Epe laburreko ondasun eta eskubideekin epe laburreko galdagarriari aurre egin diezaioke; epe luzeko finantzazioak ia izakin guztiak finantzatzen ditu.

**TEST MODUKO GALDERAK**

**Markatu ezazu, biribilduz, erantzun zuzena.**

1. a) 2. a) 3. b) 4. c) 5. c) 6. c) 7. a) 8. a) 9. c) 10. c)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2014ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2014

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
Galdera teorikoak	
1	1.7
2	2.7
Problemak	
1	2.14
2	2.24
3	3.2, 3.3
Test motako galderak	
1	2.6
2	2.7
3	2.16
4	2.19
5	3.1
6	3.2
7	3.3
8	2.23
9	1.8
10	1.7